

## KONTROL MOZIOA

### DONOSTIA TURISMOA SOZIJETATEARI DAGOKION “EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA” EZ DAGOEN BITARTEKO IRIZPIDEAK DIRELA-ETA

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko apirilaren 10ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

2017ko apirilaren 10ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean gogora ekarri genuen 2015eko urriaren 29an Udalbatzak onartu zuela Udal Gobernuari eskatzea bermatzeko, euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emateari begira, eta indarrean dagoen “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintzaldia (2013-2017)” delakoaren arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz, 2016ko testuinguruan egiten diren informazio idatzietan, eta hizkuntza aniztasuna erabili behar denean -hau da, euskara, gaztelera eta beste kanpo hizkuntzak ere- euskara ez dela kaltetua izango.

Erabaki hori, data bistan, testuinguru jakin batean eman zen: 2016 hasteko gero eta denbora gutxiago falta zenean, euskara eta gaztelaniaren erabilerari dagozkion hizkuntza-irizpideen erabileran egoera desegokiak suertatu ziren hizkuntza gehiagoren artean erabiltzerakoan. Kontrol-mozioaren ondorioz, batetik, oker batzuk aldarazi zituen Udal Gobernuak. Bestetik, kontrol-mozioaren eztabaidan zinegotzi ordezkariak gaiari heltzeko asmoa agertu zuenez, zailtasunak eta konplexutasunak aitorturik, talde honetatik eskua luzatu genuen, lan horretan laguntzeko asmoz; beti ere, inizatiba gobernuari zegokiola argi izanda. Eleaniztasunean erabilera egokiak egiteko zailtasuna, eta zailtasun hori gainditzeko hausnarketak egin beharra eta soluziobideak aurkitzeko urgentzia konpartitua, Udal Gobernuak martxoan Euskararen Kontseilu Sektorialaren Batzorde Iraunkorren, gaia jorratzeko lan talde proposamena egin zuen, Kontseiluak egoki ikusi zuen eta taldea osatu zen. Abiatzeko zorua egun indarrean ditugun arau eta irizpideak izanik,

2016a bukatu aurretik adostuak geratu ziren Donostiako hizkuntza ofizialen trataera beste hizkuntza batzuekin erabili behar direnean jarraitzeko irizpideak.

Donostia Turismo sozietatearen Euskararen erabilera normalizatzeko Plana garatze bidean da, 2015ean sozietateren eta Udalaren artean sinatu zen lankidetzahitzarmenaren ondorioz. Hortik aurrera, Udalaren ekimena euskarari dagokionez ere turismo arloan eredu eta bozgorailu zuzena izango da, sozietateak berak duen eragin biderkatzailea dela medio, bere baitan turismo arloko eragile ugari biltzen baititu.

Aurrekoak horrela, eta kontuan hartuta arazoak eta egoera kezagarriak suertatu direla euskara aniztasunean den testuinguruetan -hizkuntzen trataera egokia egiteko zailtasunak ukaezinak baitira-, bien bitartean egokitzat jo daiteke, Donostia Turismo sozietateak, iazko udazkenean, Donostiako Euskararen Kontseiluak ontzat jo zituen hizkuntza ofizialen eta beste hizkuntzen erabilera-jarraibideak presente izatea eta eguneroko jardunean aplikatzea. Gainera, jarraibide hauek adosteko prozesu horretan, Donostia Turismo sozietatea parte izan da, horretarako propio sortu zen lan taldean parte hartze zuzena izan duelako eta, beraz, aplikatzeko zailtasunak baina gakoak ere ongi ezagutzen ditu.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

1.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Donostia Turismo sozietateari dagokion “Euskararen erabilera normalizatzeko Plana” bukatzen duen bitartean hertsiki jarrai diezaiela Euskararen Kontseilu Sektorialak 2016ko azaroaren 22an ontzat jo zituen hizkuntza ofizialen eta beste hizkuntzen erabilera jarraibideei.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia



**EH Bildu talde politikoa**  
Grupo político EH Bildu



---

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
943481027 -- [eh\\_bildu@donostia.eus](mailto:eh_bildu@donostia.eus)

IFK/  
CIF/  
P2007  
400A/  
TEE/R  
EL  
01200  
697  
10655  
n 1  
2011-  
06